OSASUN TALDEA

Red adscrita Euskadi Aktiboa

Temas

Salud comunitaria, Participación.

Descripción

Ordiziako Udalak 2008an antolatu zuen I. Boluntariotza Azoka eta, horretarako, talde eragile bat sortu zen eta, geroago, "Osasun Taldea" izenarekin 2016an osatu zen. Lantalde parte-hatzailea eta inklusiboa eratzeko prozesua abiarazi zuen Ordiziako Udalak. Talde horretan, tokiko arlo asoziatiboa sartu ziren, baita osasunaren arloan diharduten beste entitate eta erakunde ere. Ordiziako Udalak udalerrian osasunaren gaia lantzen duten erakundeak, profesionalak eta herritarrak gonbidatu zituen lehenengo bilerara. Bilerarako deialdia bidali zien, taldeek betetzeko fitxa batekin batera (identifikaziodatuekin,

helburuekin, ekintzekin, udaleko osasun-planerako proposamenekin...). Urtean zehar bilerak antolatzen dira eta lantzen diren gai garrantzitsuenen artean:

- Ordiziako herritarren osasun arazoen identifikazioa.

- Osasunaren eremu desberdinetan prebentzioaren lanketa.

- Elkarteek herrian egiten duten lana ezagutu.

- Boluntariotzaren azoka antolatu. Horrela, elkarlanean hasi ziren Ordiziako osasun arloko elkarte zein eragile, sarea osatzen. Ordiziako Udalak Gizarte Ongizatea Sailaren bitartez Boluntariotza azokaren ekimena zuzentzen du bi urtean behin.

Contacto

Marian Asenjo - 943 80 56 10 - gizartehezitzailea@ordizia.eus

Fecha de última actualización del recurso

19/07/2022

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Paseo Nikolas lekuona 2 20240 Ordizia Ordizia Gipuzkoa Euskadi España



Página web del proyecto

http://www.ordizia.eus